# funtsezko elkarteak

mascare

KM-0 ko enpresa bat garenez lehengaiak, hornitzaileak eta garraioa (Ford Tourneo) bertakoak erabiltzea erabaki dugu, bertako enpresak sustatzeko. Nicolek lehengaiak garraiatzen ditu.

Gure enpresak larruazala hidratatzeko krema, makillaje finkatzailea, aurpegiko garbitzailea eta musukoak eskaintzen ditu. Horretarako ondorengo lehengaiak beharko ditugu eta beraz produktu hauek hornitzaile hauei eskatuko dizkiegu.

Larruazala hidratatzeko krema egiteko:  Urretxuko eztia, Nafarroko almendra, Bizkaiko Kirten olioa eta sahatsaren aterakina, Donostiako aloe vera pulpa, Errenteriako larrosa ura eta mugurdi olioa eta Beteluko ura erabiliko ditugu.



mascare

Honetaz gain, esprai moduko makillaje-finkatzaile bat eskainiko diegu gure bezeroei, maskara janzteko orduan makillaje-hondarrik gera ez dadin. Eskaintzen dugun finkatzailea, krema hidratatzailea bezala, aloe vera pulpaz, mugurdi olioaz, larrosa uraz eta sahatsaren aterakinaz osatuta dago.




Aurpegiko garbitzailea egiteko "Betelu" etxearen ura, Nafarroako oloa eta almendra erabiliko ditugu.



mascare

Gure bezeroei eskainiko dizkiegun musukoak guk ekoitzi ditugu eta berrerabilgarriak dira. Musukoak bamboo ehunaz eginak daude eta barrutik patata almidoizko protektore bat du. Zazpi egun igaro ondoren garbitzea gomendagarria da, 60 eta 90 gradu arteko tenperaturan. Prozesu hau asko jota birritan egin daiteke.



Barrura begira lana horrela banatuko dugu: Markel webgune eta diseinuaz arduratuko da, Aitane kontabilitateaz, Nerea hornidurez eta Nicole lehen esan bezala garraioaz arduratuko da.

mascare